

www.noaia.com

Noaia!!



Ekitaldi bete dator
Ikastolaren Eguna



Ikasle izandakoak,
orain irakasle

Zumarte Musika Eskolan

Marije
Arropa denda

Denboraldi berria!
Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

ATXEGA JAUREGIA

**Maiatzetik aurrera....asteazken zehar
GAUETAN ERE IREKIKO DUGU!!!**

Eguneko menua 17€ (BEZ barne) astelehenetik ostiralera
eguerdian eta GAUEAN !!!
Asteburuko menua 30€ (BEZ barne), Karta
Ospakizunak, ezkontzak...leku aproposa eta aukera zabala

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 158

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

<p>Administrazioa eta kudeaketa</p>	<p>Elektrizitate-elektronika</p>	<p>Fabrikazio mekanikoa</p>	<p>Ura eta energia Produktzio zerbitzu eta manten.</p>
-------------------------------------	----------------------------------	-----------------------------	--

Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

AURREMATRIKULA maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

Albistea iruditan!

Udalak eta ongizate arloko hainbat talde eragilek diru laguntzak jasotzeko hitzarmena sinatu dute

Ongizate alorretik herriko lau talde edo elkarteek udal diru laguntza hitzartua jasoko dute. Honako hauek: Usurbilen Nahi Ditugu, Usurbilgo Odol Emaileen Elkartea, DYA Gipuzkoa eta Herrira bilguneek. Lau eragileotako ordezkariak eta Usurbilgo Udalaren izenean, Mertxe Aizpurua alkatea eta ongizate alorreko zinegotzi Jone Urdanpilleta zinegotzia bertan zirela, eragile bakoitzak eta Udalak urtebeterako hitzarmen bana sinatu zuten, maiatzaren 24an Potxoenea kultur etxeko goiko aretoan burutu zen ekitaldian.



URTEBETERAKO HITZARMEN BANA SINATU DUTE.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KzGunea	943 023 684	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldgia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



MAIALEN UNANUE

Ahal dena egiten

Lorez lore ibiltzen dira erleak, hala ugaltzen dira Lhoriek larrean. Hil egiten dira erleak baten bati zizt egin ostean. Badira baina bizia eman dezaketen ziztadak ere. Berria Egunkariaren "Zure ziztada behar dugu" kanpainaz ari naiz, hain zuzen ere. Entzungo zenuen, agian, zerbait, edo ez, eta horren inguruan hitz egiteko aprobeztatuko ditut lerrook.

Ez da nobedadea, krisi ekonomikoak sektore guztiak astindu ditu, batzuk besteak baino gehiago, hori ere egia da. Egunkariak hori gutxi ez, eta paperaren krisia eta edizio digitalen gorakadaren zama daramate bizkarean. Tamalez, Berria ez da salbuespen bat, baina ezin esan edonolako biktima denik ere. Ez dizuet ez daki-zuen ezer kontatuko, euskara hutsean kaleratzen den egunkari nazional bakarra da: hamarkada betetzear (azkar esaten da) egon arren, historia luzeagoa atzetik duena.

Laguntza publikoak ditu, baita diru sarrera pribatuak ere (publizitatea). Baina bai bata, zein bestea, biak doaz beheraka, egunkariaren diru-sarrerak larri estutzen, itozten. Hedabidetik adierazi dutenez, inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina arrazoia ez da paperekoa gehiago erosten dela, baizik eta edizio digitalak bisitari gehiago jasotzen dituela. Orain arteko logikari jarraituz, zenbat eta irakurle gehiago izan, orduan eta diru-sarrera han-

diagoak lortuko lituzke publizitatearen aldetik, jende gehiagorengana helduko baitziren (bai informazioa, eta iragarkiak, noski). Baina logikak ez du joko honetan jolastu nahi.

Interneteko iragarkiekin ez da modurik aurkitu diru-sarrera esanguraturik ateratzeko. Bide horretatik, beraz, ez dago negoziaririk, ezin etekinik atera. Ondorio horretan gelditzea, baina, ez da zilegia Berriaren kasuan. Ziztadaren kanpaina abian jarri badute, ez da negozioa egin nahi dutelako, ez da aberasteko helburu zikinik dutelako. Historia luzea duen egunerokoa bizirik mantentzea, hori da xedea. Euskara kioskoetan egotea da. Euskaldunon mundu ikuspegiak euskarria izan dezan.

5.000 laguntzaileraren bila dabilta, urtean 100 euro emateko prest leudekenak. Ziztada egiten dutenek, Berrialagunek, Berrialaguna txartela eskuratuko dute, egunero jasoko dute egunkariaren PDF bertsioa, Berria Taldearen produktuetan deskontuak izango ditu, eta jarduera eta erabaki nagusien informazio osoa helaraziko zaie, beste batzuen artean. Informazio gehiago dago Berriaren webgunean.

Erdal esaeraren itzulpen kaskarra eginez, batzuetan nahi izatea eta ahalmena izatea ez datoz bat. Krisiak burumakur jarri gaituen honetan, bakoitzak ahal duena egin dezala.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Herri Batzarrak Zubietako hondakinei buruz, ireki atea osasunari

Denbora gutxi da autokonpostatzea sustatzeko bultzada eman geniola gure herrian. Honen inguruan, eskerrak eman nahi dizkizuegu etxeako hondakin organikoa etxean bertan tratatzearen aldeko hautua egin duzuenei. Horretarako aukera izan eta oraindik urratsa eman ez duzuenak ere animatu nahi zaituztegu, eta horretarako gure laguntza eskaini. Garaiz zaudete.

Organikoa bakoitza bere etxean konpostatuta, gainerako frakzioen atez-ateko bilketa abiatu nahi dugu,

etxe eta baserrietatik ahalik eta gertuen birziklagaiak eta errefusa modu erosoan bildu dadin. Eta modu eraginkorrean, honela bakarrik lortuko baitugu ahalik eta birziklatze tasarik handiena. Gaikako bilketa egokia eginda bakarrik egin diezaiokegu aurre birziklagaiak erraustu nahi duen sistemari.

Trabak, berriz, asko ditugu. Horregatik Zubietako Herri Batzarrak honako ekimena abiatuko du:

Datozen egunetan, ekainaren 4tik

9rako astean, Herri Batzarraren ordezkariak ibiliko dira etxez etxe, etxebizitza bakoitzetik kide batek Zubietako eta bereziki bere etxeako hondakinak atez ate biltzeko eskatuz orritxo bat sinatu dezan.

Uste dugu zubietarren laguntza eta babesarekin bakarrik gainditu ditza-kegula gaur egun topatu ditugun traba administratibo eta politikoak.

Datorren astean, ireki atea Herri Batzarrari. Ireki atea osasunari.

Zubietako Herri Batzarra

Ikastola Eguna, igandean

Ohi bezala, ikasturte amaierara heltzearen honetan ospatuko du Udarrregik bere Ikastola Eguna. Igandean, ekainaren 3an izango da. Ikasleen jolas, ikuskizun eta herri bazkari baten bueltan joango da aipatu eguna. Baina aurretik beste zenbait hitzordu deitu dira egunotarako ere.

Ostiralean bestalde, arratsalde partearako zenbait ekitaldi antolatu ditu Hitz Aho Udarrregi Ikastolako Guraso Elkarteak. Txan magoak frontoia bisitatuko du, txokolatea askaltzeko aukera izango da eta maiatzean zehar buruturiko buruhandiak egiteko tailerrean egin eta egunotan Sutegin erakusgai izan diren buruhandiek, desfilea burutuko da Kaxkoan zehar.

“Datorrenari, agur!”

Egun handia igandekoa izango da, ordea. LH eta DBH zikloetako ikasleek jolasetan parte hartuz hasiko dute eguna. Bitartean, ikasleen eskulan eta teknologiko lanen erakusketa bisitatze-ko aukera egongo da.

Haur Hezkuntzako txanda izango da gero. Ikuskizuna eskainiko dute eguerdiko 12:00etatik aurrera Oiardo



BAZKARIA FRONTOIAN EGINGO DA. TXARTELAK ALDEZ AURRETIK EROSI BEHAR ZIREN.

Kiroldegian. “Datorrenari, agur!”, izen hau jarri diote aurtengo emanaldiari. Hala berri eman dute Udarrregi Ikastolatik, jaialdiko istorioaren ildo nagusia aurreratzearekin batera: “Txipri eta Munix” haserre daude beti, haserre, egoera guztiakin. Ez daude inoiz konforme, baina, gure haurrei esker, beste modu batetara bizitzen ikasi dute, alde ona aurkitzen itxuraz ez duenari”.

Bazkari baten bueltan eta arratsaldeko animazio giroan amaituko da aurtengo Ikastola Eguna. Otordurako txartelak erosteko epea itxita dago jada, astelehena, maiatzaren 28a zen horretarako finkatu zuten azken eguna.

Ekainaren 2an: Merkatu Txikia

Guraso agurgarriak, datorren ekainaren 3an Udarrregi Eguna ospatuko dugu Usurbilen. Egun horren baitan, hurrengo aste osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu dira.

Haur Eskolako Gelaburuaren bileran, Ikastolaren Egunean gurasook zerbait berezia ere egin genezakeela pentsatu genuen, eta hori dela eta, iaz bezala, ekintza bat proposatzen dizuegu Haur Eskolako guraso guztioi: ekainaren 2an larunbata Merkatu Txikia egitea. Etxean erabiltzen ez ditugun gure txikien gauzak (arropak, jostailuak, puerikulturako tresnak, aulkitxoak e.a.) ekarri eta behar dituenari eman eta zerbait behar baldin badugu, hartzea.

Doan izango litzateke dena.

Haurdun zaudeten familiak ere lasai etorri, falta zaizuen hori topatu dezakezue eta!

Era honetan, festa giroan eta gure txikiakin batera, guztiok batera ekimen eder bat egin dezakegu.

Horretarako nahikoa duzue ekainaren 2an 10:00etan Haur Eskolako psikomotrizitate gelara etortzea etxean dagoeneko behar ez duzun material horrekin (erabiltzeko moduan egon behar du).

Tartean, hamaiketako goxo bat egingo dugu.

Animatu goiz eder bat pasatzera!

Haur Eskolako Gelaburuak

Ikastolaren Eguna 2012

Maiatzak 28-ekainak 1
Buruhandi tailerreko artelanen erakusketa Sutegin.

Maiatzak 31, osteguna
18:00-20:00 Urteroko ohiko batzarra Udarrregi Ikastolako erdiko aretoan.

Ekainak 1, ostirala
16:30 Txan magoa frontoian.
18:00 Txokolatada.
19:00 Buruhandi desfilea, trikitalariekin.

Ekainak 2, larunbata
10:00 Merkatu Txikia Haur Eskolako psikomotrizitate gelan.

Ekainak 3, igandea
Ikastolaren Eguna
9:00-11:30 LH eta DBH ikasleekin jolasak ikastolako patioan.
10:00-13:30 Teknologia eta eskulanen erakusketa ikastolan.
12:00 HH Jaialdia Kiroldegian.
14:30 Bazkaria frontoian eta bazkal ondorengo animazioa.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Urruti gabe



Egia esan, ez dakit zer urte zen baina artean kale nagusian bizi nintzen Noauan idazteko gonbitea jaso nuenean. Argazkia egitera etorri zitzaidan Josu portalera. Klik! eta argazkia aterata. Urte batzuk geroago askok eta askotan esan didate badela garaia argazkia aldatzeko. Agian, ez dakit, arrazoï izango zuten. Nekatu egingo zien burua oker xamar duen goiko tipo horrek. Niri, berriz, noiztik eta nondik hasi nintzen gogora ekartzeko balio izan dit. Oroitzapen mordoxka bat. Hamalau urte ez dira urruti ibiliko. Bospaseiz biderkatuz gero idatzitako testu kopurua lortuko genuke. Herriko kontu, pertsonen gorabeherak zipriztintzen dituztenak, gizartearen aldaketa etengabea eta bortitzaren ingurukoak, mota askotariko krisien iritzia, kirola, balioak, eguneroko txikitasanak eta abarri buruzko hitzak topatzen dira. Denak hobetzen lagunduko digutenaren eta gaituztenaren asmo onenaren tintaz marratuak. Okertu banaiz, barkatu. Eskertu nahi ditut animatu eta babestu nauten guztiak, kalean komentarioren bat edo beste esan didatenak, nire hitzak kritikatu dituztenak, gairen batetarako giltza izan direnak eta lagunak ere bai: afal inguruan tertulia bide izan dugulako eta giro polita sortu duelako.

SANTUENEA

JON ETXABE

Garbigune berria



Apurka-apurka uda giroa gure auzoan barneratzen doa. Ibai ondo elkartean jada kaleko mahaia geroz eta gehiago erabiltzen da, frontoiko itzalpean gero eta jende gehiago elkartzen da sargori den egunetan eta esku-baloiko zelaia futbol partida inprobisatuak jokatzeko leku gustokoena da haurrentzat. Baratzeak landatu berri-tan osasuntsu dirudite eta herrirako bidea astigar haziz betea dago, bai, airera botatzean helikopteroen hegalean gisan birak ematen dituzten haiek.

Mendietako laiozak berde-berde daude eta... zer da hori? Kubo berde bat. Garbigune berria izango delaren zurrumurrua entzun dut bai. Kostata baina azkenean eraiki dute, eta berdez margotu dute. Galtzetan jartzen diren petatxo horietako bat dirudi paisai berdean, desberdintasuna estaltzen duela, baina argi eta garbi ikusten delarik zerbait arraroa dagoela bertan. Baina herria aldatzen ari da eta egoera berrietara moldatu behar. Eraikinak loratzen ari dira herri guztian zehar, hori bai, bakoitzak bere helburua du. Konturatzen garenerako Usurbil hormigoiz eta metalez betetako petatxoak josiko zaigu, eta denborak aurre egiten duelaren lehen froga gainera datorkigun udarak dakar.

AGINAGA

M^A ANGELES ARRUTI

Udaberria



Maiatzaren 25a, gogoan hartzeko eguna izango da. "Eltxoen plaga" izan genuen toki guztietan; bai kamioietan, etxean, lehioetan, baratzen, erriberan.. Baratzen autoen kristalak beteta zeuden, gorputzean ere sartzen ziren.

Aspaldian izan genuen "Afrikako laino gorria" gogorazten zidan niri. Denean sartzen zen laino gorri hura. Oraingoa, egun batekoa izan da baina txarra izateko nahiko luzea.

Udaberrian gaude eta maiatzak lore ederrak eta koloretuak ikusi eta begiak alaitzeko aukera ematen digu. Baina urte garai honetan, gure baratza eta soroek ere ematen digute kolore desberdinak ikusteko aukera paregabea; piper berdeak eta gorriak, baba, hazandripak, perrexila, letxu gorri eta berdeak, azelga, tipula, kabalaza eta kalabazina.

Baina ilarra, patata, tomate, artoa eta babarrunak egiteko garaia ere badugu, zer gehiago eskatu dezakegu? Bai, eguraldiak laguntzea.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Azken txanpa



Konturatzerako udaran sartzerako goaz. Bixi bixi pasatzen da denbora batzuetan, mantsoegi beste zenbaitzuetan. Udarak normalean, ziztu bizian pasatzeko ohitura izaten du, eta oraindik iritsi ez den arren, begiak zabal zabalik ditugula egoten gara bere zain eta egunak mantsoegi pasatzen zaizkigu iritsi bitartean. Azken txanpek horixe dute ba, azkenak direla eta bukaeran egoten dela maldarik aldapatsuenak.

Hala ere, azken esfortzuak beti merezi du ondorengo atsedena oparizat hartzeko. Data hauetan denok egoten gara inpaziente xamar eta nekeak irabazi egiten gaitu batzuetan. Hilabete eskas barru hasiko dira festak eta batetik bestera ibiltzen izango ditugu nahikoa buruhauste. Horixe da udaran izaten dugun preokupaziorik handiena, edonork nahi luke halakorik ikasturtean zehar...!! Tira, oraindik ez da bukatu ordea eta ametsei heldu behar, datorrena gogoz hartu eta egiteke duguna ondo amaitzeko. Animo azken txanpan zaudeteni eta gogoz hartu udara!!

Ekainaren 17ko mosaiko erraldoia osatzeko, kartulinen salmenta igande honetan Dema plazan

Herritarren laguntzaz, haize errota koloretsu baten itxura izango duen mosaiko erraldoia osatzea. Horixe da, Gipuzkoa Zero Zabor bilguneak ekainaren 17rako, goizeko 10:00etatik aurrera Donostiako Saguesen finkatu duen erronka. Musikariak, bertsolariak edota Pirritx, Porrotx eta Marimotots ere bertan izango dira. Mosaiko erraldoia eguerdiko 12:30etan osatuko dela iragarri dute antolakuntzatik.

Iaz Zubietako flashmob ekimenean gertatu bezala, herritarren parte hartzea ezinbestekoa izango da oraingoan ere. Usurbil Zero Zabor bilgunetik, 500 herritar baietz joan, horixe da egina duten apustua. Horregatik, abian dira Usurbilen ekaineko hirugarren igandeko hitzordua prestatzeko lanak. Usurbil Zero Zabor bilguneak, datozen bi igandeotan, hau da, ekainaren 3an eta 10ean, eguerdi partean mahai bat jarriko du Dema plazan. Bertan, haize errota erraldoia osatzeko herritarrek eskutan hartu beharko dituzten kartulinak salduko dituzte. Bi egunotan gainera, Donostiako ekimenarekiko atxikimen-



ASTEAREN HONETAN EGIN DUTE ABERRALDIA USURBILGO ITUNAKO KIDEEK.

du argazki bana aterako da; igande honetan, saldutako kartulinekin, eta hilaren 10ean, herri eragileetako ordezkariekin. Ekainaren 8an bestalde, "Errausketari ateak ixten" dokumentala proiektatuko da Sutegin, 18:30etatik aurrera. Ekitaldia Usurbil Zero Zabor bilguneak eta ITAYA Gazte Asanbladak antolatu dute.

Usurbilgo Itunaren babes

Usurbilgo Itunak ere bat egin du ekainaren 17rako Donostian deitua dagoen ekimenarekin.

Bestetik, 2020. urterako zabortegiak eta erraustegiak desagertzea eskatzen duen txostena onartu berri duela Europako Legebiltzarrak gogorazazi nahi dute Usurbilgo Itunaren kideek.

Xabier Mikel Errekondo: "Ingurumen Ministroak pertsonalki zoriondu nau"

Espainiar gobernuko Ingurumen Ministro Miguel Arias Cañetek (PP), Amaiur koalizioako diputatu eta Usurbilgo Udaleko alkate ohi Xabier Mikel Errekondo zoriondu du, udalerrri honetako atez ateko bilketa esperientziarekin lorturiko emaitzengatik. Albistea Errekondok berak eman du jakitera, Twitter bidez. Berria, hitz hauekin azaldu du Errekondok: "Ingurumen Ministro Cañete jaunak pertsonalki zoriondu nau Usurbilen hiri hondakinen kudeaketan, atez ateko bilketan lor-

turiko emaitzengatik". Usurbilgo alkate ohiak gaineratu duenez, "Madrilen PPK eta PSOEek argi eta garbi babesten dute atez atekoa eta Gipuzkoan, EAJ, PSE eta PPK zergatik halako interesa politikarekin nahasteko?". Udaberri honetan bertan, espainiar gobernuko Ingurumen Ministerioak eredugarritzat jo du, 2009ko martxoaz geroztik udalerrri honetan martxan dagoen bilketa sistema. Usurbilgo atez atekoa "Praktika onen" atalean sartu du PP-ren gobernuak.

Hondakinak erraustea galarazteko eskaera European

Zabortegiak pixkanaka desagerrarazi eta 2020tik aurrera birzikla daitezkeen gaiak erraustea galarazteko eskaera egin dio Europako Parlamentuak Europako Batzordeari, joan den astean bozkatu eta onartu zuten txosten baten bidez. 479 parlamentarioren babes jaso du txostenak, 66k aurka bozkatu dute eta 63 abstenitu dira. Aldeko bozken artean, hiru europarlamentario hauenak daude: Izaskun Bilbao (EAJ-PNV), Jaime Mayor Oreja (PP) eta Carlos Iturgaizena (PP).

Matrikulazio epea ixtear Zumarten

Musika Txokoko irakaslea da Agurne Alkorta, gitarrakoa Ixak Arruti. Biak Zumarten hazi eta heziak. Lehen ikasle izandakoak eta musika alorrean prestatu ostean, bi usurbildarrak maisu lanetan dabilta egun. Musika Eskolan egin duten ibilbidearen nondik norakoak azaldu dizkie NOAUA!ri, matrikulazio epea ixtear duten honetan. Herritarrak izen ematera animatzen dituzte.

NOAUA! Musika eskolako ikasleak izanak zarete, baina nolatan hasi zineten irakasle lanetan?

Agurne Alkorta. Bitxia da baina, Ixak eta biok 7 urterekin maila berdinean batera hasi ginen, "preparatorio" deitzen zen orduan. Gero Zumarten musika mintzaira, flauta ikasten eta abesbatzan parte hartu nuen. 18 urterekin utzi egin nuen. Bilbon musikako karrera bukatzen ari nintzela, hemen irakasle laguntzaile sartu nahi nuen esan zidaten. Azken urtean, goizetan ikasi eta arratsaldetan lanera etortzen nintzen. Eta jada ordutik, zortzi urtez hala segitu dut.

Ixak Arruti. Zumarten "preparatorio" delakoa egin nuen. Abesbatzan parte hartu nuen, atabala ere jotzen nuen txistulariekin. Beti izan dut harremana Zumarterekin. Gero Kontserbatoriora joan nintzen. Iazko irailean gitarrako klaseak emateko deitu zidaten. Oso gustura nabil.

N. Nola bizi duzue Zumarten hazi eta hezi ostean, orain bertako irakasle izatea?

A. A. Modu naturalean eraman dugu. Beti egon gara han eta itzuli ginenean, tokiak berdin segitzen duela eta jende berdintsua dabilelako lanean, beste bat gehiago izango bazina bezala integratzen zara lanean. Bitxia da halere, aurreko batean guk txikiak gineneko argazki batzuk erakutsi zizkiguten.

I. A. Lehen dena egina genuen. Kontzertua genuenean, dena lotua ego-



IKASTURTEAN HAINBAT KONZERTU ESKAINTZEN DITUZTE ZUMARTEKO IKASLEEK.

ten zen. Orain irakasle izanda, planeatu egin behar da, han egon behar zara karga eta deskargarako, umeak kontrolatzen... Beste alderdi hori ezagutu dugu. Hau beste aldea da.

AGURNE ALKORTA

"Beste instrumentu batzuk indartzen hasi dira; tronpeta edo biolina berriz indartu da azken urteotan"

N. Zumarten hasi eta bere ibilbide profesionala musikara bideratu nahi duenari zer aholkatuko zenioke?

I. A. Musikara dedikatu nahi duenak eta profesionalki mundu honetan egon nahi duenak, kontserbatoriora joan behar luke, baina egunean bost orduz jotzera.

A. A. Beste bide batzuk jorratu beharko lituzke, seguruenen Donostiara joan saiatzera, beste ikasketa batzuk egitera. Musikako profesionala izatea oso zaila da, eta hortaz bizitzea are gehiago. Usurbilgo musika eskolak beste helburu batzuk ditu ordea; musikarekiko zaletasuna bultzatu, musika egin daitekeen leku batean elkartzea, gutxieneko maila ez da hainbeste exijituko.

Zumarte, herriko musika jardueren bultzatzaile

NOAUA! Zer funtzio betetzen du Zumartek herrian?

Ixak Arruti. Herriko musika jarduerak bultzatzea; festak direnean, trikitilariak, txistulariak, orain txaranga ere bada; ikasturtean zehar hiruzpalau kontzertu ematea gurasoen aurrean, eta beti ere, kontzertuen aurrean kilima horiek sentitzea...

N. Zertan aldatu da zuen eskolako eskaintza?

A. A. Duela urte batzuk, gustukoena ziren musika instrumentu batzuen eskaerak gainezka egin zuen. Horregatik, Euskal Herriko musika eskola guztiak neurriak hartzen hasi ziren.

N. Zeintzuk izan dira Zumarten, musika instrumentu gogokoena?

A. A. Trikitixa, gitarra, pianoa eta bateria. Horietan egun kupo bat dago. Gainerako eskaintzan ez. Modu honetan, azken urteotan eman da bai aldaketa, ze beste instrumentu batzuk indartzen hasi dira; tronpeta edo biolina berriz indartu da azken urteotan. Bestalde, aurtengo aldaketa nabarmena, talde pilo osatu direla da.

“Gazte asko ari dira orain taldeak sortzen”

NOAUA! Zumarte inguruan talde batzuk sortu dira. Talde horietako kideak izanda, zuentzat zer nolako esperientzia izaten ari da?

Agurne Alkorta. Ganbarakadaren kasuan, bueltatu nahi genuen artean sortu da. Gaztetan ibiltzen ginenean, talde nahiko indartsua ginen. Eta orain berriz astean behin elkartu eta musika egiten saiatu nahi genuen. Gero etorri da emanaldiak egiteko aukera. Gure helburua halere, berriz bildu eta musika egitea zen. Talde gehiago ere sortu dira; Urrezko Muskerrak, musikari izan diren helduen taldea, gazteak ere indartsu datoz... Hiru abesbatza ere baditugu.

Ixak Arruti. Jende asko zegoen Zumarten ibiltzen zena, oso ona eta musikarako balio duena, faltan bota eta barruko har hori zutenak. Astean behin elkartu, bertsio batzuk jo, eta ondo pasa nahi zutenak. Gure kasuan Ganbarakada etorri zen, Atxegaldeko festetako kanta egin genuen, gero kontzertuak etorri dira, eta talde formatuan, pixka bat Zumartetik atera gara.

N. Eskola barruko eguneroko bizitza nolakoa da?

A. A. Enpresek goizez funtzionatzen duten bezala, musika eskolak umeak eskolatik atera ondoren, arratsaldean jarritzen dira martxan. Musika eskolak uzten



AGURNE ALKORTA ETA IXAK ARRUTI, ZUMARTEKO IRAKASLEAK.

digun tokiaren arabera banatzen ditugu egunak. Egun batzuetan, musika txokoa dago, besteetan musika mintzaira. Gela handienak eurek hartzen dituzte. Eta gela txikietan banatzen dira musika instrumentuak irakasteko klaseak.

I. A. Izena ematen dutenek, ordu erdiko klase indibidualak jasotzeko aukera dute eta gero taldearekin beste ordu erdi batez aritzekoa. Oso eramangarria da. Zumartetik gertu bizi direnek gainera, irakaslearekin hitz eginda eguerdian klaseetara joateko aukera dute.

N. Nola ikusten dituzue ikasleak?

A. A. Ikasleena adinarekin lotua doa. Guri gertatu zitzaigun moduan, hasieran Zumartera joaten ginenean, lagunekin egon, elkartzeko eta ondo pasatzeko leku bat zen. Gero adin kritikoa dator, batzuk musika eskola utzi egiten dute. Baina adin hori pasa eta musika gustuko duenak, gu bezala bueltan etortzen dira. Gazte asko ari dira orain taldeak sortzen. Hori egia esan, uste dut Usurbilentzat oso garrantzitsua izaten ari dela.

I. A. Denak gustura ikusten ditut. Bai gitarran eta taldeetan inork ez du utzi, hurrengo urtean denek segitzen dute.

Kontzertuak bi aste barru, ikasturtea borobiltzeko

NOAUA! Hurrengo ikasturteari begira nobedaderik izango al da?

Agurne Alkorta. Zumartek eraikuntza aldetik behar duenaren aurrean, erantzuten hastea espero dugu. Gehienbat neguko hotzagatik. Eraikina puskaka erortzen ari da, ez da segurua eta ezta bideragarria ere. Igogailua behar duen ikasle bat dugu. Egun, gurasoak igo eta jaisten du. Bestalde, hurrengo urtean aldaketa bat egongo da, matrikulazio garaian ondo esplikatuko dena.

Ekainaren 19ko kontzertua
Ekaineko kontzertuetan aldaketa txo bat egin du Zumarte Musika Eskolak. Ekainaren 19an astearte, Zumarte Txiki, Zumarte Abesbatzak, biolin-flauta, klarinete taldeak eta talde instrumentalak Sutegin eskainiko duten kontzertua arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

Matrikulazioa, azken txanpan
Egunak: maiatzak 28-ekainak 1.
Ordutegia: 11:00-13:00/16:30-19:30.



4 URTETIK GORAKO EK EMAN DEZAKETE IZENA ZUMARTEN.

Informazio gehiago Zumarteko egoitzan (Kale Nagusia, 45) edota telefonoz: 943 37 15 94 / www.zumarte.org

Gipuzkoako Kopan nagusi izan dira

Hiru eskubaloï partida iragarrira zeuden aurreko asteburuan Oiardo kiroldegian, eta hiruretan giro ederra izan zen. Senior neskek jokatu zuten lehenbizi, Kopa Nazionaleko partida. Eta ondoren, Gipuzkoako Kopako bi finalak. Biak, kadete mailari dagozkionak. Usurbil KE mutilen taldeak aise irabazi zuen finala, Zumaiako Pulpo taldearen aurka. 22-33 izan zen azken emaitza. Atera kontuak. Parekatuta joan zen partida baina, bigarren zatian, Usurbil KE ondo ibili zen defentsan eta horri esker lortu zuten garaipena. Kopa eskuratu zuten unean, pozarren ziren jokalariaik.



PARTIDA POLITA JOKATU ZUTEN ETA MEREZIMENDU OSOZ IRABAZI ZUTEN.

zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitetz

berrilaguna

Informazio eguneratua eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berrilaguna izan nahi baduzu, bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- Postaz: BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- Posta elektronikoz: laguna@berria.info
- Telefonoz: 943-30 43 45

berria^{info}

Neskek ere txapelketa ederra osatu dute

Mutilek Kopa irabaztea lortu zuten. Usurbil KEko nesken taldeak, ordea, ez. Baina harro egoteko moduan daude. Denboraldi txukuna osatu dute eta Kopako finalean ere maila ona eman zuten. Gogotsu aritu ziren usurbildarrak. Harmailetan ere giro berezia sortu zen bateko zein besteko jarraitzaileen artean. Baina Elgoibarkoak indartsuago aritu ziren, bigarren zatiaren amaieran bereziki, eta markagailuan ihes egitea lortu zuten. 24-19 izan zen azken emaitza, Elgoibar nagusi. Partida amaieran triste aurpegia zuten usurbildar neskek. Beste batean izango da. Orain oporraldiaz gozatzeko garaia da...



ELGOIBAR ETA USURBIL KE TALDEKO KIDEAK, PARTIDA AMAIERAN.

KOMERTZIAL DISEINATZAILA
NOAUA!

**KOMERTZIAL DISEINATZAILEA BEHAR DA
NOAUA! KULTUR ELKARTEAN, AMATASUN-BAJA
BETETZEKO IRAILETIK AURRERA**

FUNTZIOAK:
NOAUA! astekariko eta noaua.com webguneko publizitatea antolatzeko.
Eginbehar nagusiak: publizitatea lortu, publizitate moduloak diseinatu, bezeroen behar komertzia-
lei erantzun eta bestelako diseinu lanak.

PROFILA:
- Publizitatean lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere) edo diseinu ikasketak
eginda izatea.
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.
- EGA edo baliokidea den agiria izatea baloratuko da.
- Gida-baimena izatea baloratuko da.
- Komunikatzaile ona eta teknologia berrietan trebatua izatea.

ZER ESKAINTZEN DA:
- Lau orduko lan-saioa gizarte segurantzarekin.
- Amatasun-baja betetzeko kontratua.

Curriculum-a ekainaren 15a baino lehen ekarri edo bidali:
NOAUA! Kultur Elkartea | Borda Berri 3, 20170 Usurbil | E-postaz: elkarte@noaua.com

ATERA EUSKARA EGUZKITARA!



aek usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia, 45 behea. 20170 USURBIL

- **IKASTARO TRINKOAK**
 - (uztaila-irailan 100 orduko ikastaroak)
 - **MAILA GUZTIETAKO IKASTAROAK**
 - 1, 2 eta 3. (E.G.A) mailako azterketa prestaketak
- 607 609 379 usurbil@aek.org
www.muntteri.blogspot.com.es



UDAKO ESKAINTZA · MAILA OFIZIALAK · EGA



**FAMILIA
BARNETEGIAK**

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO AUKERA



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK
ON-LINE IKASTAROAK



**BARNETEGI
IBILTARIAK**

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO



**BERTSOLARITZA
BARNETEGIA**

BERTSOTAN IKASTEKO
EUSKARA PRAKTIKATZEKO

Mertxe Aizpurua alkatea: "Elkarlana, herrigintza eta partaidetza sustatu nahi dugu"

Bilduk zuzentzen duen gobernu taldeak urtebete darama udaletxean lanean. Datozen egunetan bilerak egingo ditu auzoz auzo, herritarrak entzun eta iritziak jasotzeko, *Udalak entzuten zaitu* zikloaren baitan. Bileretan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte herritarrak; "denon artean Usurbil hobeago bat egiten saiatuko gara". Mertxe Aizpurua alkateak eman dizkigu ekimen honen xehetasunak.

NOAUA! Urtebete egin duzue udaletxean lanean. Eta datozen egunetan, erronda modukoa egingo duzue auzoz auzo. Zein da bilera hauen arrazoi nagusia?

Mertxe Aizpurua. Hauteskunde kanpainen egin genuen bezala, urtebete pasa eta gero, auzoz auzo erronda bat egitea interesgarria iruditu zaigu.

AUZOZ AUZO

"Udalaren informazioa emateaz gain, herritarren ikuspegia eta zalantzak bildu nahi ditugu"

Noski, urtebete hau nola joan den ere azalduko dugu, gure ikuspegia emango dugu eta azalpenak mahai gainean jarriko ditugu, baina bilera hauen xede nagusia Udalaren eta herritarren arteko komunikazioa bultzatzea da.



AUZOZ AUZO IBILIKO DA DATOZEN EGUNETAN.

N. Auzoetako bilera horietara hurbiltzen diren herritarrek aukera ederra izango dute euren kezkek eta proposamenak azaltzeko. Hori ere bada helburua, herritarren hitza jasotzea, ezta?

M. A. Bai, batez ere, hori da helburua. Udalaren informazioa emateaz gain, herritarren ikuspegia eta zalantzak bildu nahi ditugu. Ahalik eta iritzi, iradokizun edota kexu gehien bildu nahi ditugu eta era zuzenean egin nahi dugu. Guztietaz hitzegiteko aukera izango dugu. Ez da planteamendu itxi bat. Entzutera goaz. Elkarlana, herrigintza eta partaidetza sustatu nahi dugu eta era honetarako ekimenak sustatzea ezinbestekoa da Bilduren ikuspegitik. "Udalak entzuten zaitu" lelopean egin dugu deialdia; horixe egitera goaz.

"Udalak entzuten zaitu" ekimena, auzoz auzo

Santueneko Auzo Elkartearen, ekainak 4, 19:00etan.

Kalezargo Auzo Elkartearen, (Haranen), ekainak 6, 19:00etan.

Zubietako Kaxkapen, ekainak 7, 19:00etan.

Aginagan Antxomolantxa Elkartearen, ekainak 11, 19:00etan.

Urdaiaga / Txokoalden Erroizpe Elkartearen, ekainak 13, 19:00etan.

Kaxkoan Potxoenea Kultur Etxean, ekainak 18, 19:00etan.

Etxeko olio biltzeko sistema berria, indarrean

Erainaren 1etik aurrera etxean erabilitako olio biltzeko sistema indartu egingo da. Ostiraletik hasita, erabilitako olio San Markoko kamioian eta Pikaolan biltzeaz gain, hiru larrialdi guneetan eta saltoki hauetan ere jasoko dute: Alkartasuna kooperatiba, Imanol Txapartegi harategia, Aliprox supermerkatua, Alkorta Autozerbitzuak, Artzabal supermerkatua, Esnaola Echave, Otar Goxo, Txalaka fruta denda eta Eiza denda. Trukean, herriko dendariak txartelak banatuko dizkiete olio utzi duten herritarrei, batzuk 10 euroko saria izango dutelarik.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Bertsopaper Lehiaketa, martxan

Bota Punttubatik berri eman dutenez, lehiaketako lanak ekainaren 25era arte aurkez litezke udaletxean; gutunazal batean goitizenaekin. Barruan beste gutunazal batean egilearen datuak adierazi beharko dira. 6-10 bertso idaztea eskatzen dute oraingoan. Herritarrei irekia den txapelketa dela gogorazi nahi dute.

Bete beharreko baldintzak hauek dira:

- Usurbildarra izatea.
- Gai librean idaztea.
- Lanak, ekainaren 25a baino lehen Udaletxera eraman edo postaz bidali: XXXVI. Bertsopaper Lehiaketa Joxe Martin Sagardia Enparantza 20170 Usurbil
- Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.
- Gutxienez 6 bertso; gehienez 10.
- Saria: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150. Hirugarrenak, 100.
- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izen-goitiz.
- Lanarekin batera gutun itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak ipini.
- Erabakia jaietako bertso saioan emango da aditzera: ekainaren 30ean.

Aurre matrikulazio epea zabalik, Lanbide Eskolan

Dokumentazio eta eskabideak ekainaren 8ra arte aurkez daitezke Usurbilgo Lanbide Eskolan. Bulego ordutegian: astelehenerik ostiralerara, 9:00-14:00 artean.

Informazio gehiago: 943 364 600 telefono zenbakian edo emailaz eskola@lhusurbil.com helbidean.



EKAINAREN 5EAN ARTZABALEN IZANGO DA JON MAIA.

Jon Maiaren hitzaldia

Hilero hitzaldi bat antolatzeko hartu duten ohiturari jarraituz, Jon Maia gonbidatu du Bota Punttubak ekainaren 5ean, Artzabalera. Maialen Lujanbio eta Unai Elizasuren saioen ostean, "Doinua eta Kantaera" izeneko hitzaldia eskainiko du, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Antolatzaileek aurreratu dutenez, "Jon Maiak gidatutako ikastaroa da hau, eta bertan zenbait doinu eta kantaera entzun eta komentatuko dira. Doinuaren funtzio komunikatiboa eta ez komunikatiboaren azterketa eta kantaeraren interpretazioa landuko dira. Horrez gain, ahots propioaren bila dabilen bertsolari pinguinoaren teoria ere azalduko da". Ekitaldirako sarrera doakoa izango da.

Hasierako Lanbide

Prestakuntza Programak

Usurbilgo Udalak antolatzen dituen Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetarako matrikulazio epea zabalik dago. "Sukaldari-zerbitzari langilea" eta "Ile-apainketa eta estetika laguntzailea" ikas daitezke bertan. Informazio gehiago: 943 36 04 65 / lhi.usurbil@gmail.com

Jaietako helduen

danborradan izen-ematea

Datozen jaietako helduen danborradan parte hartu nahi dutenek, astelehenean, ekainaren 4an izango dute izen emateko aukera. 20:00etan, Agerialden. Egun horretan bertan burutuko da lehen entsegu saioa, eta hortik aurrera, astelehen eta asteazkeneko ordu eta leku berean jarraituko dute prestaketa lanek.

Jai Batzordearen bilera

Santixabeletako Jai Batzordea bilduko da berriz, datorren asteartean, ekainaren 5ean. Ohiko ordu eta lekuan; 18:30etik aurrera Potxoenean.

Paleta Goma Txapelketa, datozen jardunaldiak

NESKEN TXAPELKETA

2. JARDUNALDIA

Ekainak 5 asteartea Usurbilen, 19:30h

Azpiroz – Ane Aranburu

Rosa Uribe – Nagore Leoz

Miren Alkaide – Ane Bailo

Dolo Errasti – Aitziber Aranguren

MUTILEN TXAPELKETA

2. JARDUNALDIA

Ekainak 10 igandea Usurbilen, 17:30h

Josu Arruti – Manuel Galarraga

Enrike Huizi – Jokin Zubiar

Iban Arruti – Haritz Harreguy

Oidui Usabiaga – Mikel Ibarreta

Xabier Murua – Jon Olaizola

Igor Alkorta – Eneko Arregi

Imanol Esnaola – Xabier Errasti

Unai Loidi – Josu Errekondo

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

LAUKOTE

okindegia
kafeteria

LAUKOTE

Puntapax 16, behea 943 360 980

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Irisasi BTT elkartearen materiala eskatzeko aukera

Mendiko eta errepideko txirrindularitzako ekipazioa prestatu du Irisasi BTT txirrindulari elkarteak, Andatza Mendi Elkartearekin batera. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, nahi duen orok ekipazioa lortzeko eskaria egin dezake jada, ekainaren 15era arte. 678 858 477 telefono zenbakira deituta edo email bat andatzabtt@hotmail.com helbidera bidalita.

“CRAFT markako jantzi hauek kalitate onekoak eta teknologikoki aurrerakoiak dira. Besteak beste, Radioshack Nissan Trek taldea janzten duen marka da”, adierazi dute Irisasi BTT bilgunitik. Udako zein neguko arropak prestatuko dituzte. Prezio eta diseinuak Oiardo Kirolegian edo Andatza Mendizale Elkartearen web orrialdean,



EKAINAREN 15ERA ARTE
EGIN DAITEZKE ESKARIAK.

hau da andatzamendizale.info atarian ikusi ahal izango dira egunotan.

Eskaintza zabala

Mallot eta kulote motzez osaturiko udako ekipazioa, mallot eta kulote luzez osaturiko neguko ekipazioa, euritarako txaketa, txalekoa, udako kamiseta termikoa, besoetako mangitoak, hanketarako pernerak... denetarik dute.

Alebin federatuko futbol taldean izena emateko aukera dago

2012-2013 denboraldian, alebin federatu mailako taldea osatu asmo du Usurbil FT-k. Plaza mugatuak izango dira, gehienez 16 lagunentzako lekua dago. Apuntatzeko epea ekainaren 7ra arte zabaldu dute.

Izen emateko bi modu daude: futurusbil@yahoo.es helbidera email bat bidalita, edo ostegunetan, Usurbil FT-k Haranen duen egoitzara gerturatuta, 18:00-20:00 artean. Partaide bakoitzak 100 euroko kuota ordaindu beharko du,

irailetik maiatzera luzatuko den denboraldirako. Usurbil FT-koek denboraldia modu honetan antolatua dute, alebin federatuen taldearentzat: entrenamendu saioak ostiraletan 18:30-19:30 artean izango dira eta neurketak igandero jokatuko dituzte.

Izena ematen dutenei konpromiso osoa eskatzen die Usurbil FT-k eta ohar-tarazten dutenez, talde honetan apuntatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da datorren denboraldian Eskola Kirolean parte hartzea.

Errioxako asteburu pasa prestatzeko bilera

Andatza Mendizale Elkarteak Ekainaren 9 eta 10erako Errioxara asteburu pasa antolatu du. Izen emateko epea zabalik dago oraindik, ekainaren 4ra arte. 60 euroko ordainketa egin beharko dute Andatzako kideek, 65 euro gainerakoek Kutxako kontu honetan: 2101.0069.16.0121883656. Aterpeko pentsio erdia eta joan etorrirako autobusa sartzen dira prezio horren baitan. Bestalde, Errioxako irteera prestatzeko bilera deitu dute antolotzaileek, ekainaren 7rako, 19:00etan Sutegin.

Eskalada ikastaroa

Bi eguneko eskalada ikastaroa ere antolatu du Andatza Mendizale Elkarteak, uztailaren 7 eta 8rako. Izen emateko epea zabalik dago ekainaren 11ra arte. Informazio gehiago: andatzamendizale.info

Buruntzaldeko II.

Areto Futbol Txapelketa

Asteburu honetan jokatuko da Lasarte-Orian. Makax taldeak ordezkatuko du Usurbil.

Ekainak 1, ostirala
20:00 Usurbil-Lasarte Oria.
21:00 Andoain-Urnieta.

Ekainak 2, larunbata
18:30 Finala.

Tokia: Lasarte-Oriako kiroldegia.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatua eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Guraso eta gazteei zuzenduriko sexu heziketa tailer bana antolatu du Udalak

Parekidetasun alorreko zinegotzi Enara Arbizuk, duela aste batzuk aldizkari honetan iragarri moduan, sexu heziketari loturiko tailer eta ekimenak antolatu ditu Udalak ekainerako. Hitzorduok hiru herritar multzoei zuzenduak egongo dira; hau da, gazteei, gurasoei eta helduei.

Hasteko, sexu heziketa tailerrean parte hartzeko aukera izango dute DBH3ko gazteek. Ekainaren 8an izango da, ostiralez, 15:15-17:15 artean Potxoenea kultur etxean. Sexu Aholkularitza Guneak eta Gaztelekuak loturiko hitzordurako, partaide bakoitzak euro bat ordaindu beharko du.

Bestalde, ekainaren 13an, 19an eta 20an haur sexualitatea tailerra antolatu du Udalak, 7-12 urte arteko haurren guraso, arduradun eta hezitzaileentzat. Aldez aurretik eman behar da izena, Parekidetasun Sailean, 943 377 110 telefono zenbakira deituta, edo parekidetasuna@usurbil.net helbidera email bat bidalita. Sexu Aholkularitza Guneako arduradun Elena Jimenezek



EKAINAREN 8AN DBH3KO

IKASLEENTZAT TAILERRA POTXOENEAN.

zuzenduko du tailerra. Saioak eguerdietan izango dira, 14:30-16:30 artean. Antolakuntzak ohartarazi duenez, 0-3 urte arteko haurrak tailerrera eraman daitezke. 3 urtetik aurrerako haurrentzat haurtzaindegi zerbitzua egongo da Potxoenea bertan.

Bideoforum, helduei zuzendua

Azkenik, adinekoei zuzenduta, bideoforum saio bana antolatu du Udalak, Santuenea Kultur Elkartearen ekainaren 11n 16:30ean eta hilaren 20an 17:30ean Aginagan. Bi hitzorduotan ere dinamizatzaile lanak Jimenezek egingo ditu. "Antonia" izeneko filma eskainiko da eta, ekitaldiodan, tertuliarako tartea ere hartuko da.

San Juanetako oilasko

biltzaileen bazkarirako txartelak, salgai

Kalezargo San Juan jaien baitan ospatuko den oilasko biltzaileen bazkarirako txartelak aldez aurretik erosi beharko dira; ekainaren 5, 6 eta 7an, 19:00-19:30 artean Peña Pagola elkartearen. Antolatzaileek ohartarazi

dituzenez, norberak etxetik eraman beharko du bazkaritarako behar duen plater, sardexka, labana eta gainerako tresneria. Otordua, hilaren 16an, larunbatarekin ospatuko da Kalezarren.

8 eskaera, Maixu Etxen bizitzeko

Joan den maiatzaren 23an itxi zen, Maixu etxeko alokairuko pisuetako batean bizitzeko izen emateko epea. Guztira, zortzi eska-bide jaso ditu Udalak. Zerrenda hau jendaurrean hamar egunez egongo da, herritarrek erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Denbora tarte honetan halakorik ez balego, zerrenda behin betiko onartu eta zozketa egingo dela iragarri dute Udaletik.

1975eko kinto afaria

1975 urtean jaio zirenen kinto afaria egingo da ekainaren 30ean Atxega jauregian. Animatzen denak usurbil1975@gmail.com e-postara idatzi dezala, ekainaren 22a baino lehen.

Aitzaga Elkartearen lan deialdia

Aitzaga Elkartea garbitzeko arduratuko den pertsonaren bila dabil. "Interesdunek beren izen-abizenak eta kontakturako telefono zenbakia helbide honetan utz dezakete: Aitzaga Elkartea, 30 postakutxa. Azken eguna: ekainak 5 asteartea".



GARBITZAILE BILA ARI DIRA.

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Agenda!

Ekainak 1 ostirala

Txan magoa 16:30ean frontoian.
18:00etan txokolata banaketa eta
19:00etan buruhandien desfilea.

Ekainak 2 larunbata

Merkatu txikia, 10:00etan Haur
Eskolan, Kalezarren.

Ekainak 3 igandea

Ikastolaren Eguna (ikus 5. orria).

Ekainak 5 asteartea

Hitzaldia: "Doinua eta Kantaera".
Jon Maiarekin, 19:30ean Artzabalén.

Goardiako farmaziak

Maiatzak 31, osteguna
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 1, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Ekainak 2, larunbata
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 3, igandea
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 4, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Ekainak 5, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Ekainak 6, asteazkena
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Ekainak 7, osteguna
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Ekainak 8, ostirala
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Ekainak 9, larunbata
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Ekainak 10, igandea
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak
irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Aginagako udako txokoetan, izen ematea zabalik

Ekainaren 15era arte irekita dago jada, San Praixku Guraso Elkarteak uda honetarako Aginagan antolatu dituen udako txokoetan izen emateko epea. Txokoak uztailaren 2tik 30era burutuko dira, goizez, 10:00-13:00 artean.

Antolakuntzatik ohartarazi dutenez, irteerak egiten diren egunetan eguneroko ordutegia aldatu daiteke. Informazio gehiago eta izen emateko, honako telefono zenbaki hauetako batera deitu daiteke: 600 484 948 (Manuel) edo 650 011 933 (Mari Jose). Prezioak iazko antzekoak izango direla iragarri dute, txokoetan parte hartzeko gonbita luzatzearekin batera. "Aukera ederra eskola desberdinetan ibiltzen zaretenok, Aginagan bertan elkartzeko", adierazi dute San



4 URTETIK GORAKO EKEMAN DEZAKETE IZENA.

Praixku Guraso Elkartetik.

Bilera, ekainaren 13an

Udajolasen inguruko xehetasun gehiago emango dira ekainaren 13an asteazkena, Udarregi ikastolan egingo den bileran. 17:00etan hasiko da eta Udajolasen izena eman duten haurren gurasoei zuzenduta dago.

"Euskal Jairen desalojoa", Sutegin

Gaztetxeari buruzko hausnarketa prozesu betean dagoen honetan, bideo proiektzioa antolatu du ITAYA Gazte Asanbladak, igande honetarako, ekainaren 3rako, 18:30etik aurrera Sutegin. "Euskal Jairen desalojoa" dokumentalean, Iruñeko azken gaztetxearen hustuketa eta eraistea azaltzen da. 2004 urtean eman ziren gertaeretan oinarritutako bideoa da, hain zuzen.

Oria ibaia piragua bidez garbitzeko deia

Oria ibaia garbitzeko deia egin du aurten ere, Puntapax Kanoe Kirol Elkarteak. Ekainaren 16an larunbata jarri du hitzordua, 9:30ean Zubietako Aliri zubi ondoan. Iaz zabor asko jaso zutela eta, azaroko uholdeen ondorioz, antolakuntzatik adierazi dutenez, oraingoan, "zabor gehiago jasoko dugulakoan gaudu". Hondakinen bilketa piragua bidez egingo da.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 gela, altzariekin, dena berriua. 590 euro hilean. 635 744 070.
- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.
- Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabalal@gmail.com
- Pisua alokairuan Santuenean, 65m berriua, 2 logela, 650euro. Tf: 667 438 145.
- Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)
- Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairuko, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailen. 665720913 / 665720914
- Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.
- Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berriua. 3 balkoi eta ganbarra. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.
- Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezeta. 943370957.
- Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.
- Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.
- 3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia. 3 logela, egongela, 2 bainugelak, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara,igogailua. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, dena berriua, fatxada,teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabilta Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriurik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzaren jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kapritxozko Citroen Saxo salgai premiazkoa 2.200 euro. SS-BH, sekula istripurik izan gabea. Ondo zaindua eta gehigarri batzuk opari: bolante deportiboa eta erruberak zabalteko piezak. 609 928 387.
- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat... Atxegalden. 628 063 871.

- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalena. 647 120 253.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Sukaldari bat behar da Usurbilgo jatetxe baterako. 670 410 273.
- Sukaldari bat behar dugu, Xarman. 943 368 771.
- Selektibitate prestatzeko klaseak jaso nahi ditut martxoan eta apirilean, bi alor hauetan: Matematika (zientzietakoa eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoa. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan-eskaintzak

- Ingeles natiboak klaseak eskaintzen ditu uztailean Usurbilen, 10 urteik gorakoei 686 499 775 (Toby).
- Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).
- Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.
- 18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanerako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf: 626 735 354.
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.
- Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.
- 17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilera amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)
- 16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den lanerako egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889 / 692577515 (Xabier)
- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
- Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanerako. 618 030 296.
- Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanerako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf: 673 445 903.
- Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomatu eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrik emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrik emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf: 628 692 334.
- LHko haurerantz klase partikularrik emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziak eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrik emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta eus-

- karaz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrik, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urteik 8 urte arte klase partikularrik emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zainzeko. 660041361.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanerako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa tituluak egina pertsona helduak edo ezinduen zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendar lanetan aritzeko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendar moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrik ematen ditut ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltzeritza lanerako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanerako. Esperientziaduna. 658107757

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Angora arrazako 10 katu txiki oparitzen ditut. Tlf: 628 745 443.
- Mutil baten txamarra, talla 10-12, galdu zaigu frontoian. Beig eta urdin kolorekoa. 656 702 957.
- Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223
- Egoera onean dauden kamping kanadienseak jasoko genituzke. zioztage@gmail.com
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon"en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpian. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.
- Haur sila eta kapazoa erosi nuke: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosi nuke. 634409888.
- Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta nintendo DSI-aren softwarea aldatzen da, Internetetik jaisitako joko guztietan jolastu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen,ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.



Zorionak Izaro!

7 urte bete dituzu. Zorionak eta muxu handi bat Naia eta etxekoan partez!



Zorionak Ane!

Maiatzaren 25ean 4 urte bete dituzu. Muxu asko Julen, Janire eta familia guztiaren partez. Ondo pasa!



Zorionak Nahikari!

Ekainaren 1ean 8 urte beteko dituzu. Ondo ondo pasa eta muxu handi bat guraso eta Aimarren partez!

EDERTU ZAITEZ!

LOLI LIZARRALDE
ESTILISTA



L'ORÉAL
PROFESSIONNEL

INOA
Kolorazio sistema berria!

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

Jwar
ESTETIKA



DNA berehalako beltzaranketa
5 minututan, %100 naturala

solarium BERTIKALA
(eguneratua, errebisio guztiekin)

BONU BEREZIAK

munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

artzabal baserria 626603600

MASZADA
NATURAL THERAPY

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

UDABERRI HONETAN...
Bolumenta, pisua, moldeaketa, erreafirmazioa eta tonifikazioa lantzen dituen bi tratamendu ezin hobekak ekarri ditugu:

Revolution
Zelulitis (Entxarkatiba, edematosoa, fibrosoa, enkistada) lantzen duena.

MINCEUR INTENSIVE
Gizentasun morbidoa eta menopausia lantzeko.

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

Egun osoa irekita! Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41



Elexpey
ileapaindegia



Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4. ☎ 943 361 951

mistoa

UDALAK ENTZUTEN ZAITU



Usurbilgo Udal gobernu taldeak urtebete darama Udalean eta auzoetan bilerak egingo ditu herritarrak entzun eta iritziak jasotzeko.

EGUNAK

AUZOAK

EKAINAK 4 - 19:00etan

SANTUENEAko Auzo Elkartean

EKAINAK 6 - 19:00etan

KALEZARgo Auzo Elkartean (Aranen)

EKAINAK 7 - 19:00etan

ZUBIETAko Kaxkapen

EKAINAK 11 -19:00etan

AGINAGAn Antxomolantxa Elkartean

EKAINAK 13 -19:00etan

URDAIAGA/TXOKOALDEn Erroizpen

EKAINAK 18 -19:00etan

KAXKOAN Potxoenea Kultur etxean



Bilera hauetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu eta denon artean Usurbil hobeto egiten saiatuko gara.

